

INFORMAZIO PUBLIKOA
ESKURATZEKO
ESKUBIDEAREN
EGIKARITZA

—
2022KO MEMORIA

Aurkibidea

1. Sarrera	2
2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak	2
3. Eskaerak arloka	4
4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak	5
5. Eskaerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak	6
6. Eskaeren hizkuntza	7
7. Eskatzaileei buruz	8
8. Zerbitzuaren ebaluazioa	8

1. Sarrera

Herritarrek 2022ko ekitaldian informazio publikoa eskuratzeko egindako eskaeretatik jasotako datuak aurkeztea da dokumentu honen xedea.

Horretarako, 2022ko urtarrilaren 1etik urte bereko abenduaren 31ra bitartean erregistratutako eskaera guztiak hartu dira kontuan, jatorria eta modalitatea edozein izanda ere.

2. Eskaera kopurua eta kontsultatutako gaiak

Ermuko Udalak informazio publikoa eskuratzeko **41 eskaera** jaso ditu 2022. urtean. Kontsulta-eremuak edo eskatutako gaiak honako hauek izan dira:

Espediente zkia	Eskatutako informazioa
22/2022	Obra lizentzia baten inguruko informazioa
58/2022	Hirigintzako dokumentuen inguruko informazioa
487/2022	Etxebizitzako planoen inguruko informazioa
578/2022	Gazteen lokal baten jarduera lizentzia
743/2022	Kaleratzeengatik Udalak galdu dituen sententziak
750/2022	Eraikinaren ke irteeraren instalazioko planoak
873/2022	Gazteen lokal baten ustezko jarduera lizentzia

969/2022	Lomi Powerreko argindarraren tramitazioaren datuak
1059/2022	Tenneco Automotiveren jarduera espedientea
1208/2022	Betiondoko proiektuaren dokumentazioa
1384/2022	Etxebizitzen exekuzio proiektua
1405/2022	San Pelaio 7ko obren inguruko informazioa
1615/2022	Etxebizitzaren planoak
1763/2022	Seme-alaben errolda informazioa
2010/2022	Garbiketa autozerbitzuaren eraberritze proiektua
2015/2022	Gazteen lokal baten ustezko jarduera lizentzia
2512/2022	Etxebizitza eta garajeen obra espedientea
2619/2022	Sakristiako proiektuaren inguruko informazioa
2700/2022	Santa Anako parkearen planoak
2837/2022	San Pelaioko lokal baten planoen kontsulta
2855/2022	Erroldako helbideak ziurtatzea jakinarazpenak bidaltzeko
2884/2022	Komunitate baten dokumentazio grafikoa
3059/2022	Jakinarazpen baten kopia eskatzea
3500/2022	Etxebizitzaren planoak
3576/2022	Herritarren partaidetza proiektuen informazioa
4442/2022	Miguel Angel Blanco omentzeko ekitaldien informazioa
4652/2022	Zaborraren tasen ordainketei buruzko informazioa
5144/2022	Udalean egindako izapideei buruzko informazioa
5595/2022	Igogailua eraikitzeko proiektuaren informazioa
5758/2022	Pobrezia energetikoari buruzko datuak
6206/2022	Kontu-hartzaitzako txosten eskaera
6222/2022	Jarduera industrialen espedienteen kontsulta
6483/2022	Aldapa 11 proiektua
6481/2022	Hirigintzako eta erroldako dokumentazioa
6551/2022	Goitondoko argazki zaharrak
7372/2022	Goienkale 15 eraikuntza proiektua
7610/2022	Diputazio 13 proiektuaren planoen kopia
7660/2022	Udal aurrekontuko pertsonalaren txostenaren kopia
9027/2022	Izelaietako obra proiektua
9157/2022	Lursail baten egungo egoera

9406/2022	Hildako senide baten errolda agiria
-----------	-------------------------------------

Oharra: dokumentu honetan behar bezala tratatu dira datu pertsonalak identifikatzea edo datu pertsonaletara lotzea ahalbidetzen duen informazioa duten eskaerak, pertsonak beren datuak babesteko duten eskubidea bermatzeko. Horregatik, lerro hauen ginean dagoen taulan, informazioa modu despertsonalizatuan erakusten da.

3. Eskaerak arloka

Herritarrek Udalari kontsultak egiteko orduan dituzten interesak bere horretan mantentzen dira azken urteetan, eta 2022an ere, gehien eskatu den infomazioa **hirigintza alorrekoa** da: planoak, eraikuntza-proiektuak, lizentziak, lokalak eta abar.

Herritarren Partaidetza eta Gardentasun Saila arduratzen da informazioa eskuratzeko eskaerak jasotzeaz, horien edukia aztertzeaz eta eskaera dagokion arlori bideratzeaz, interesdunari ahalik eta erantzunik egokiena eman diezaion. 2022. urtean, jasotako eskaerak honela banatu dira udal-arloen artean:

Alorra edo saila	Jasotako eskaera kopurua
Abiapuntu	2
Komunikazioa	5
Hirigintzako Diziplina	7
Informatika	1
Pertsonen kudeaketa	2
Hirigintzako Plangintza eta Kudeaketa	21
Idazkaritza	1
Gizarte Zerbitzuak	1


4. Eskaeren izapidetze egoera eta erantzun-epeak

Ermuko Udala herritarren aldetik jasotzen dituen eskaera guztiei erantzuna ematen saiatzen da. Erakundeak aurreko urtean erregistratu dituen 41 eskaeretatik, 40 onartu dira eta **39 erantzun dira**.

38 eskarik aldeko erantzuna jaso dute eta eskatutako informazioa eman zaie. Eskatzaile bati ukatu egin zaio informazioa, datu pertsonalak dituelako eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrekin zuzenean talka egiten duelako.

2837/2022 espedienteak erantzun ofizialik gabe jarraitzen du 2022. urtearen amaieran. Bestalde, herritarren eskaera bat Udaleko beste arlo batzuetara bideratu da, ez baita informazio publikoa eskuratzeko eskaera bat, Udaleko langileekin biltzeko eskaera bat baizik.

Alde grafikoari dagokionez, honela geratuko litzateke eskaeren egoera 2022 urte amaieran:



Erantzuteko denborari dagokionez, Administrazio Publikoak legez hilabeteko epea du herritarrei erantzun bat eskaintzeko; epe hori igaro ondoren, erantzunik eman ez bada, kontsulta ezetsizat joko da. Azpimarratzekoa da, informazioa lortzea zaila denean edo bilketa lan handia behar denean, Udalak

hilabete bat gehiagoko epea izan dezakeela erantzuna emateko, interesdunari egoeraren berri eman ondoren.

2022. urtean, Ermuko Udalak erantzuteko batez besteko denbora **31 egunekoa** izan da. Ehunekoetan emanda, kontsulten %80,4 legezko hilabeteko epean ebatzi dira.

5. Eskerak egiteko eta erantzunak jasotzeko bideak

Erakundeak hainbat bide eskaintzen ditu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak egin ahal izateko. Oro har, eskaera-fitxa bat bete behar da datu pertsonalekin, harremanetan jartzeko modu batekin eta lortu nahi diren datuen xehetasunekin. Ez da beharrezkoa eskaera arrazoitzea, ezta informazioa zertarako eskatzen den adieraztea ere, eta dokumentua hainbat modutan entregatu daiteke:

- Aurrez aurre: Abiapuntu bulegoan, astelehenetik ostiralera 08:00etatik 15:00etara. Eskaera-orria bertan eskuratu, bete eta entregatu daiteke.
- Posta elektroniko: eskaera-orria behar bezala beteta abiapuntu@udalermua.net helbide elektronikora bidaliz. Udaleko beste arlo batzuetara ere bidali daiteke mezua, baina helbide elektronikori erabiltzea gomendatzen da, Abiapuntuko langileak arduratzen baitira eskaerei erregistroa emateaz eta informazioa eskuratzeko espedientea abian jartzeaz: bertan zentralizatzen da prozesuaren hasiera. [Eskaera burutzeko fitxa](#) udalaren webgunearen bidez deskarga daiteke.
- Egoitza elektronikoaren bitartez: erregistro telematikoak eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan, dokumentuak aurkezteko aukera ematen du. Egoitza identifikatzeko eta izapide ezberdinak burutu ahal izateko, ziurtagiri digitala izan behar da. Behin erregistroan sartuta, bertan osatu daiteke [informazio publikoa eskuratzeko eskaera](#).
- ORVEren bitartez: ORVE Administrazio Publiko guztiei eskaintzen zaien administrazio elektronikoko zerbitzua da hodeian. Horrek hiritarrek erregistro-bulegoetan aurkezten dituzten dokumentuak digitalizatzeko eta

helmuga duten helbideetara elektronikoki bidaltzeko aukera ahalbidetzen du. Ermuko Udala izan da zerbitzu hori erabili duen lehen toki-erakundeetako bat, eta, beraz, herritarrek edozein bulegotan entregatu dezakete eskaera, eta udalak berehalakoan jasotzen du jakinarazpena.

- Posta arruntez: ohiko posta zerbitzua erabiliz ere egin daitezke kontsultak. Horretarako, Abiapuntu - Komentukua kalea 3, 48260 Ermua, Bizkaia helbidera bidali beharko da gutuna. Eskaera-fitxa erabiltzea gomendatzen da; [Udalaren webgunearen bidez deskarga daiteke](#).

2022. urtean, informazioa eskuratzeko biderik erabiliena, bigarren urtez jarraian, **egoitza elektronikoa** izan da, 20 kontsulta jaso baitira bide telematikoen bitartez. Abiapuntun, bulegora bertaratutako herritarren eskutik beste 18 eskari iritsi dira, eta 3 pertsonak posta elektronikoa aukeratu dute kontsultak egiteko.

Bestalde, eskaera egiten duen orok Udalaren erantzuna jasotzeko nahiago duen modalitatea ere aukera dezake. Hala, eskaeretan zehaztutako argibideei jarraituz, gehienak **posta elektronikoaren bidez** erantzun dira: 16 guztira. 11 interesdunek egoitza elektronikoaren bitartez jaso dute erantzuna, eta beste hiruk posta arruntaren bidez. Azkenik, 9 pertsona joan dira udaletxera bertara, eskatutako informazioa formatu fisikoan baino ezin baitzen kontsultatu.

6. Eskaeren hizkuntza

Gardentasunari, Informazio Publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu Onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legeak ezartzen duenez, ebazteko ardua duen administrazio publikoa dagoen lurraldeko edozein hizkuntza ofizialetan egin daitezke informazio-eskaerak. 2022. urtean, erregistratutako eskaeren ia %100 **gaztelaniaz** izan dira (41tik 40). Euskara hutsezko eskaera bat baino ez du jaso erakundeak.

7. Eskatzaileei buruz

Eskatzaileari buruzko datu estatistikoei dagokienez, komeni da gogoraraztea informazioa eska daitekeela, bai pertsona fisiko indibidual gisa, baita elkarte edo erakunde bateko ordezkari gisa ere. Azken kasu horretan, datuak jasotzerakoan, taldearen profilari eustea erabaki da, ordezkariaren sexua kontuan izan gabe.

Beraz, bereizketa horri erreparatuz gero, ikusten da Ermuko Udalari informazioa eskatu dioten gehienak **gizonezkoak** direla (19). 12 emakumek erabili dute zerbitzua, baita 10 enpresa edo elkartek ere.

8. Zerbitzuaren ebaluazioa

2017az geroztik, Ermuko Udalak informazio publikoa eskuratzeko zerbitzuaren gogobetetze-inkesta du abian. Hala, erakundean eskaera bat erregistratzen duen pertsona bakoitzak, erantzunari dagokion jakinarazpenarekin batera, galdetegi bat jasotzen du – paperean edo elektronikoki, sarbide-modalitatearen arabera –, kanalei, izapideei edo emandako erantzunari buruzko galderekin.

2022. urtean, 4 pertsonak bete dituzte gogobetetze-inkestak: 38 eta 65 urte bitarteko hiru gizonek eta emakume batek. Pertsona horiek hainbat puntuazio eman dituzte sei eremutan, eta 10etik 9ko batez besteko balorazio orokorra eman diote zerbitzuari.